



Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programa.

III. ERANSKINA : JARRAIPENA

Urtea :2020 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Enpresa jardueraren jarraipena eta sustraitzea sustatzea testuinguru egoki bat sortuz eta garatuz, enpresa transmisioa ahalbidetzeko tresnak eta esparruak sortuko dituen, eta enpresak transmititzeko formulak babestu eta euskarria emango diena.

ENTITATE ONURADUNAK

- Gipuzkoan errotutako enpresak eta enpresa elkarteak.
- EAEn kokatutako enpresa elkarteak, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzeko dituztenak.
- Gipuzkoan kokatutako unibertsitate publiko eta pribatuen zentroak, sailak, atalak, institutuak eta bestelako ikerketa unitateak.

DIRULAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Hauek dira diruz lagundu daitezkeen jarduketak: ikerketak, analisiak eta azterketak, sustapen eta dinamizazio ekintzak eta baita ere proiektu esperimentalak eta ekintzen inplementazioa, enpresa jarraipenaren eta transmisioaren eremuan; hauek dira helburuak:

- Informazioa sortzea eta lortzea, erabakiak hobeto hartzea ahalbidetuko duena.
- Testuinguru egokiak sortzea, lurralde eragileak, eta eragile ekonomikoak eta sozialak barneratuko dituen.
- Prozesuak, sistematikak, tresnak eta laguntzak garatzea eta abian jartzea enpresen jarraipenerako eta transmisiorako ingurune egokiak sortzeko.
- Gobernu korporatiboko egiturak eta prozesuak sortzea eta horiek trebatzea.
- Enpresa transmisioan parte hartzen duten pertsonentzako sentsibilizazio, trebakuntza eta ahalduntze dinamikak.
- Sentsibilizatzea, ikusaraztea eta gizarte baliaraztea, enpresa jardueraren jarraipenari eta transmisioari dagokionez.



DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatua jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean. (Ikusi diruz lagungarriak diren kostuak 12.oinarrian).

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 75 izango dira, salbu eta hainbat proiektuetan -ikerketak, analisiak, azterketak, tresnak, kontzientziazioa eta sentsibilizazioa, ebaluazioa eta sustapen eta dinamizazio ekintzak- % 100 izango baitira.

EMATEKO PROZEDURA

Lehiaketa bidezkoa, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

Dirulaguntza hauek ez dira bateragarriak helburu bererako beste dirulaguntza, sarrera edo baliabiderek, baita edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional, europar edo nazioartekotik etortzen direnekin ere.

BETETZEKO EPEAK

Eskaerak aurkezteko epea: 2020ko irailaren 29an, goizeko 12:00etan amaituko da.

Jarduerak hasteko epea: dirulaguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.

Proiektuen exekuzio data: 2021eko ekainaren 28a.

Proiektuak justifikatzeko data: 2021eko uztailaren 28a

ARAUDI APLIKAGARRIA

Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programaren 2020ko oinarri arautzaileak eta deialdia: III.ERANSKINA - Enpresa jardueraren jarraipena sustatzea. (2020ko uztailaren 21eko Diputatuen Kontseiluaren erabakia. [GAO 144 zk. 2020ko uztailaren 30ean](#)).

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak
<http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programas-y-ayudas/competitividad/jarraipena>
- Eskaera kudeatzeko aplikatiboa
<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Turismoko eta Landa
Ingurunekeo Departamentua

EKONOMIA SUSTAPENeko ZERBITZUA

Kudeaketa administratiboa: 943.113981

Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus